



ALBOKOAK ATSEGIN DITUZU?

Materiala: klarionak.

Jokatzeko era:

Taldeko partaideak borobilean jarriko dira, haietariko bat erdian geratuz. Partaide bakoitzak betetzen duen tokia markatu egingo du, klarionez edo beste modu batez, erdikoak izan ezik. Erdian dagoenak berak nahi duenari ondorengo galdera egin behar dio: Mikel eta Ane atsegin dituzu? (Galdetutakoaren ondokoen izenak erabili). Galdetutakoak ezetz erantzun behar du: Ez, Mikel eta Ane ez ditut atsegin. Ondoren, beste bi partaide atsegin dituela esan behar du: Ainhoa eta Asier atsegin ditut. Orduan izendatutako lau partaideek eta borobilaren erdian dagoenak ere lekuz aldatu behar dute. Saiatu behar dute borobilaren erdiko tokira (markatu gabera) ez joaten. Lekurik gabe gelditzen dena hura joango da erdira eta galdetzeari ekingo dio.

Aldaera:

Euskara mailaren arabera, galdera erraztu daiteke: Maite eta Jon zure lagunak dira?

